

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

**18** positibo berri  
**2.432** positibo guztira\*

### NAFARROAN

**28** positibo berri  
**528** hildako  
Positiboak guztira eguneratu gabe  
Sendatuak EAEn: 18.493

# EAJ-PNVk irabazi du, baina igoera haundia izan du EH Bilduk ere, eta Urumea bailaran nagusitu da

%52,85eko partehartzearekin, 31 eserleku lortu ditu EAJ-PNVk, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan; eta 22 EH Bilduk. Hernanin eta Astigarragan, EH Bildu izan da alderdi bozkatuena, bi herrietan gora eginda.

### URUMEA HAUTESKUNDEAK

EAJ-PNV eta EH Bildu izan ziren protagonista nagusiak atzo, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Jeltzaleek irabazi zituzten hauteskundeak, 31 eserleku eskuratuta, 2016an baino hiru gehiago. Baina igoera haundia izan du EH Bilduk, 22 eserleku lortuta, 2016an baino lau gehiago. Urumea bailaran, gainera, EH Bildu nagusitu da, duela lau urte bezala, baina igoera haundiarekin, bai Hernanin eta bai Astigarragan.

Hernanin, botoen %49,04a jaso zuen EH Bilduk, 2016an baino ia sei puntu gehiago; eta EAJ-PNV izan zen bigarren indarra, beste behin, botoen %26,50arekin (2016an, %24,31). PSE-EEK aurrea hartu zion Elkarrekin Podemosi, hirugarren indarra izateko; eta

behera egin zuen nabarmen PP eta Ciudadanosen koalizioak.

Astigarragan ere, EH Bilduk lortu zuen boto gehien, %43,12a; 2016an baino bost puntu eta erdi gehiago. EAJ-PNV izan zen bigarren, botoen %34,24arekin. Eta oso berdinduta geratu ziren PSE-EE (%8,30) eta Elkarrekin Podemos (8,07). Beherakada haundia izan zuten PPK eta Ciudadanosek ere, Hernanin bezala.

Emaitzetatik harago, abstentzioa izan zen protagonista, nabarmen egin baitzuen gora. EAE mailan, %47,15koa izan zen abstentzioa, duela lau urte baino zazpi puntu altuagoa (%39,98). Eta nabaritu egin zen hori, Urumea bailaran ere. Astigarragan, %49,68a abstenitu zen, ia erdia (2016an %41,08a); eta Hernanin %45,96koa izan zen abstentzioa (2016an, %39,47koa).



Maskarillak jantzita joan behar izan zuten denek atzo, bozkatzera. Hautesleku izan zen atzo, Hernaniko kiroldegia ere.

Eta protagonista izan ziren, baita ere, Koronabirusarengatik hartutako segurtasun neurriak. Hernanin eta Astigarragan, toki berriak egokitu zituzten hautesleku gisa, eta maskarillarekin joan ziren bozkatzera denak.

### Sei alderdi ordezkaturata, Eusko Legebiltzarrean




EAE mailan, %52,85koa izan zen

partehartzea, eta sei alderdik lortu zuten ordezkaritza, Eusko Legebiltzarrean: EAJ-PNVk 31 eserleku; EH Bilduk 22; PSE-EEK 10; Elkarrekin Podemos-Ezker Anitzak 6; PP-Ciudadanosek 5; eta VOXek 1.

Hori horrela, gorakada izan dute EAJ-PNVk eta EH Bilduk; eta eserleku bat gehiago lortu du PSE-EEK ere. Elkarrekin Pode-

mosek eta PP-Ciudadanosek, berriz, beherakada nabarmena izan dute, bost eta lau eserleku gutxiago lortuta, hurrenez hurren. VOXek lortu zuen azkeneko eserlekua, Hernanin eta Astigarragan oso boto gutxi jaso arren.

Hauteskundeetako emaitza gehiago eta grafiko interaktiboak, ikusgai daude Kronikaren webgunean: [kronika.eus](http://kronika.eus). **K**



## ALAI

ODONTOLOGIA ZENTROA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA  
Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 21:00  
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

PREBENTZIO ETA KONTSERBATIO ODONTOLOGIA	ODONTOPEDIATRIA
HORTZ ESTETIKA	ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK
AHO KIRURGIA	TELERRADIOGRAFIK
INPLANTEAK	3D SCANNERRA
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA	AHO BARRUKO SCANNERRA
PERIODONTZIA	KIRURJIA NABEGATUA
ORTHOAPNEA	ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 [www.alaiaclinica.com](http://www.alaiaclinica.com) [alaihernani@gmail.com](mailto:alaihernani@gmail.com)

## FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

**Asegururik ba al duzu?**  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**  
[www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

**GAUR** Giro eguzkitsua izango dugu gaur, baina itsasaldeko haizea ibiliko denez, behera egingo du tenperaturak. Baliteke goizean goiz eta gauean behe-lainoak sortzea, baina gainerakoan garbi egongo da zerua. **Min.13° / Max.23°**

**BIHAR** Berdintsu jarraituko du bihar. Itsasaldeko haizea ibiliko da berriro, eta ez du bero handirik egingo, baina eguzkitsua egongo da. Dena den, behe-lainoa sortu daiteke berriro, egunaren hasieran eta bukaeran. **Min.13° / Max.22°**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Erribera kulturguneak badu logoa, Noelia Lozanok egina

13 proposamen jaso ditu Udalak, eta Astigarragan bizi den donostiarrarena aukeratu du.

**ASTIGARRAGA KULTURA**

Pausoak ematen jarraitzen du, irailean zabaltzekoa den Erribera kulturgune berriak. Eta oraingoan, logoa aukeratu du Astigarragako Udalak, azken asteotako prozesuaren ondoren: Noelia Lozanok egindakoa hautatu du, jasotako 13 proposamenen artean.

Sortzez donostiarrak da Lozano, baina Astigarragan bizi da. Diseinatzaile grafikoa da, eta esperientzia handia dauka komunikazio grafikoaren eta irudi korporatiboaren arloan, Udalak jakinarazi duenez.

«**Ur urdin baten pintzeladak balira bezala irudikatu dut eraikin berezi hau**» Aurkeztutako logoan, kulturgunearen eraikinari eman nahi



Noelia Lozano, Erribera kulturgunearen logoarekin (ikus 'kronika.eus' web orrian).

izan dio protagonismoa Lozanok, eta Erriberaren eta ibaieraren kolore urdinarekin margotu du: «logoa sortzerakoan, bate-tik, beharrezko protagonismoa eman nahi nion kultur etxe berria kokatuko den eraikinari, berezia baita; eta bestetik, ibaia eta Erribera izenaren kontzeptua ere irudikatu nahi nituen. Bi alderdi horiek batuz, ur urdin

batzen pintzeladak balira bezala irudikatu dut eraikin berezi hau», azaldu du egileak.

Proposamena aurkezterakoan, Piztu ezizena erabili zuen berak: «laster astigarratar guztiok espazio berri hori gozatu eta bizitzaz betetzeko ideiatik dator, gutako bakoitzaren barruan kulturak sortzen duen argi hori piztuz», nabarmendu du. **K**

## Bederatzi film labur eta Beñat Iturriotzekin solasaldia, etzidamu

Laburbira antolatu du Doberak, 18:30etan Biterin. Hernaniarrak zuzendua da filmetako bat: 'Gau Beltza'.

**HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

Ohi baino beranduago, baina aurten ere ez du hutsik egingo Laburbirak, Hernanin. Dobera Euskara Elkarteak antolatuta, ostegun honetan izango da Biterin, arratsaldeko 18:30etan hasita, Euskerazko film laburren XVII. zirkuitua. Hasiera batean, martxoaren 25ean egitekoa zen, baina atzeratu egin zen, Koronabirusaren eraginez.

Bederatzi film labur eskainiko dituzte, eta solasaldia ere antolatu du Doberak, film horietako baten zuzendariarekin: Beñat Iturriotz hernaniarrarekin, hain justu. *Gau beltza* film laburra da berak zuzendutakoa, eta etzidamu ikusgai egongo dena, Laburbiran.



'Gau beltza' film laburraren irudi bat. Laburbiran egongo da ikusgai, ostegunean.

Honakoak dira, jarriko dituzten beste zortzi filmak eta horien egileak: *Urak dakarrena* (Marilyn Taldea), *Anti* (Josu Martinez), *Tigre bat* (Amaia San Sebastian), *Pil pil* (Kristina Zorita), *Mamarro* (Ibon Iza Totorika), *Kateak* (Yolanda Mazkieran), *Jauzi bat eta prixt* (Maitane Eyheramonho), eta *Harria herria* (Dimagaz Kultur Elkarte).

2018 eta 2020 urteen artean egindakoak dira, «sortzaile gazteenak gehienak, eta esperientzia luzeko zuzendarienak beste

batzuk», azaldu dute. Guztira, ordubeteko «koktela» osatu dute ostegunerako, «kalitatezkoa eta dibertigarria, euskerazko film laburren zaleei merezi duten gozatua emateko».

Doberak gogorarazi du, bi helburu dituela, Euskaltzaleen Topagunearekin batera antolatzen duen saioak: «euskerazko sortzaileen lana ezagutaraztea, euskeraz ekoizten jarraitu dezaten aukera zabalduz; eta ikusleak hemen eta euskeraz sortutako lan hauekin gozaraztea». **K**

## Final laurdenetako ligaxkak segida, gaur

**HERNANI ESKU PELOTA**

Hirugarren astea hasiko du gaur, Zikuñaga Papelera Torneoak, eta final laurdenetako ligaxkari emango diote segida. Arratsaldeko 17:30etan hasita, lau partidu izango dira, Hernaniko frontoian; eta aurrenekoan, elkarren kontra ariko dira Auritz Txintxurreta eta Jon Urrutia hernaniarrak, lau t'erdian. Bihar, berriz, beste lau partidu izango dira, 17:30etan hasita; eta horietan ere izango da herriko pelotaririk: aurrena, alebinetan, aurrez aurre ariko dira Alberdi-Arretxe eta Olaskoaga-Macicior bikote hernaniarrak; eta ondoren, nagusietan, Urkizuk jokatu du, Epleko Odriozolarekin, Oiarpeko Ugalde eta Etxeberriaren kontra. Bi egunetako kartelera osoa, eta larunbatean jokatu duen partiduen emaitzak, ikusgai daude, [kronika.eus](http://kronika.eus) web orrian, albiste honekin batera.

## Etxeko tresnak Garbigunean utzi behar direla gogorarazi dute; gaur, aukera

**GOIZUETA GARBIGUNEA**

Azkenaldian hondakinak behar ez den lekuan azaldu direla eta, Goizuetako Udalak gogorarazi du etxeko tresnak Garbigunean utzi behar direla. San Anton inguruan dago Garbigunea, eta gaur bertan izanen da aukera, horretarako: astelehenero 12:30etatik 16:30etara, eta hileko aurreneko larunbatean 10:00etatik 13:00etara eraman daitezke hondakinak bertara.

## Donostiarra bosgarren atzo, Zierbenan

**HERNANI ARRAUNA**

Estropada ona egin zuen atzo ere Donostiarrak, Xabat Pastor hernaniarra berriro traineruan zela; eta bosgarren sailkatu zen Zierbenan. Hondarribia irabazlea, Santurtzi, Zierbena eta Urdaibai izan zituen aurretik. Atzo lortutako zortzi puntuekin, aurrea hartu dio Oriori, eta bigarren dago ligan, Santurtziren atzetik.

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Normaltasun berrian, betiko jarrerak

Joan den ostegunerako deialdi irekia egin genuen, hauteskunde atarian gazteon iritzia erakutsiz, EH Bilduren aldeko argazkia ateratzeko. Deialdian garbi adierazi genuen bezala, osasun krisi honen aurrean beharrezko segurtasun neurriak bermatuta (beharrezko distantziak edo/eta maskarillak) argazkia ateratzeko jarri ginen unean bertan, Ertzaintza azaldu zen. Jarrera oldarkorarekin dokumentazioa eskatu ziguten pankarta heldzen ari ginen bioi, eta baimenik gabe kanpaina egiten ari ginela leporatu ziguten. Haiei garbi adierazi genien eta hemen ere argi utzi nahi dugu, osteguneko ez zela EH Bilduren kanpainaren

barruko ekitaldia izan, Hernaniko gazteok egindako deialdia baizik. Hala ere, beraien betiko jarrera autoritarioarekin, multa jasoko dugula mehatxu eginez alde egin zuten.

Delako normaltasun berri honetan, indar polizialek betiko jarrerarekin jarraitzen dute, euskal gazteria beldurtu eta isilduko dutelakoan, baina oker daude. Mehatxu eta jarrera autoritario horien aurrean, Euskal Herri ezkertiarra, independentista, feminista, euskalduna eta ekologista lortu arte aktibo jarraituko dugu.

**Ainhoa Galarza Noble eta Ainhoa Ortiz de Urbina Mendez**

## IRAGARKI MERKEAK

**17 urteko neska prestua abuztuan edozein lana egiteko prest. Deitu: 621 056 818**  
**Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko.** Euskara jakitea ezinbestekoa. **Deitu: 688 69 40 34**

**Emakumea lan bila:** edozein lan egiteko prest. **Deitu: 609 209 161**

**Pisukede baten bila nabil Hernanin.** Maskotarik gabe. Interesatuak deitu zenbaki honetara: **630 271 757**

**Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA,** esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzio kursoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**